

ZANTZU GUZTIEN ARABERA BERE BURUA LEIHOTIK BOTATA HIL ZEN INTSUMISO IRUINDARRA

# Salanuevak ezin izan zuela kartzela jasan dio familiak

Herenegun gauean hirugarren solairutik erorita hartutako kolpeen ondorioz hil zen Unai Salanueva intsumiso iruindarra. Haren errautsak Aralarren zabalduko dituzte igandean. Bestalde, hainbat taldek heriotzaren erruduna «kartzela sistema» dela diote.

Irene Arrizurieta / Iruñea  
Jone Larrañaga / Andoain

BIHOTZEAN mina eta aurpegian tristura zuten atzo Unai Salanueva intsumiso iruindarraren familiak eta lagunarteak. Unai Salanueva 22 urteko intsumisoa Iruñeko Txantrea auzoan bizi zen, eta duela hiru hilabete epaitu ondoren joan den astelehenean zortzi kartzelaratu zuten. Herenegun arratsaldean bigarren gradutik hirugarrenera pasatu zuten. Aske zelarik, arratsaldeko sei eta erdiak aldera iritsi zen etxera, eta arratsaldea familiarekin pasatu zuen. Aita zortziak aldera Euskal Herria Askatu plataformaren manifestaldira joan zen Iruñera, eta Unai amarekin geratu zen etxean.


Amarekin berrikeretan egon ondoren, gaztea bere logelara joan zen, eta geroago amak eta auzokideek atariko lurrean aurkitu zuten. Salanuevatarrek Txantrea auzoko Corella kaleko lehenengo zenbakiko hirugarren solairuan bizi dira, eta antza denez Unai bere logelako leihotik botata bere buruaz beste egin zuen. Segituan Nafarroako Ospitalera eraman bazuten ere, ailegatu bezain pronto hil zen erorketan egindako zauri larriak zirela kausa.

Aitak atzo EGUNKARIARI adierazi zionez, familiak ez du ulertzen gertatutakoa. Gurasoak igandean bisitan izan zituen kartzelan. Goibel samar zegoen eta begietan tristura nabaritzen omen zitzaion. Unai mutil barnerakoia eta isila zen, hitz gutxikoa, sentimenduak bere baitan gordetzen zituen. Aitarenean ustetan, semeak ezin izan du espetxea jasan, «uste baino gogorragoa gertatuko zitzaion, eta ezingo zuen jasan». Hala ere, inolaz ere ez zuten pentsatu gertatutakoa jazo zitekeenik.

Egun, Unai langabezian zegoen, eta ez zen inongo talde intsumisotako partaide. Alegria peñako kide zen, eta Paz de Ziganda Ikastolan eta Irubide Institutuan ikasi zuen.

Familiak hileta elizkizunik ez egitea erabaki du. Unairen gortz-atalak dohaintzan eman ditu, eta gaur goizean goiz gorpua Zaragora eramanez dute erraustera. Intsumisoari azken agurra igandean emanen diote. Aralarko San Migelen Unairen errautsak zabalduko dituzte lagunarteko ekitaldi berezi batean. Familiak zer ordutan izango den garaiz jakinaraziko duela ohartarazi zuen atzo.

«Kartzela izan da erruduna» • «Heriotza hau kartzelaren eta errepresioaren ondorio da», azpimarratu du Kakitzateko Fernando Mendibilek, eta egoera hau «Gobernuaren erantzukizuna»



Unai Salanuevak astebeite egin zuen Iruñeko espetxean bigarren graduan. Astelehenean atara zen kalera hirugarren graduan, eta iluntzean berriro kartzelara joan behar zuen.  
JOXE LACALLE

dela osotara. «Hirugarren gradua», jarraitu du, «zigor samurra dela entzuten da, kalean entzuten da gure arazoa konponduta dagoela; baina honek erakusten du hirugarren gradua ere gogorra dela». Hala eta guztiz ere, intsumisoei euren jarrerari tinko eutsiko diotela zehaztu du Mendibilek, gertatutakoak inoiz baino gehiago baieztatzen duela jarrera hori.

Kontzientzi Eragozpen Mugimenduak (KEM) zuhurrago jokatzen du, nahiz eta onartu duen kartzelan bizi izandakoak eraginik izango zuela jazoera latz honetan. «Gauza gutxi dakigu gertaeren inguruan, eta, ondorioz, ez gara ausartzen azterketa publikorik egitera. Dena den, orain dela gutxi eman zitoten hirugarren gradua, eta ziur gaude kartzelan bizi

izandakoak ez zuela inola ere eragin onik izango gaztearen orekan», adierazi zuten.

HB, LAB eta Jarrai bat datoz Kakitzatekin, eta heriotza hau kartzela eta errepresioaren ondorioa izan dela azpimarratu dute; dena den, horiek azken asteotan izan diren heriotzen kontestuan jarri nahi izan dute gertakaria. «Euskal Herrian jasaten ari garen errepresio basatiaren beste ondorio mingarri bat da», zehaztu du HB. Talde abertzalearen iduriko, «oker handia da disidentzia errepresio bidez desagertarazi» nahi izatea. «Ekologistak, antimilitaristak eta elkarrizketan eta partehartze sozialean oinarritzen den bake alternatiba erakusten dutenak kartzelaratu dituen estatua askatasunik gabeko estatua da», gaineratu du.

LAB ere bat etorri da baieztapen horiekin. Atzo komunikabideetara bidalitako prentsa oharrean sindikatuak iritzi dionez, Espainiako Estatuko kartzela sistemaren eta euskal gazteriaren kontrako errepresioaren biktima izan da Salanueva. «Kartzelak eraman du, gure herriak bizi duen okupazioari intsumiso izateagatik euskal gazteriari jarri dioten zigorrak eraman du», dio idatziak. Hildakoaren senitartekoei dolu mina eta babesa eta kide zituen intsumisoei elkartasuna adierazi ondoren, Salanuevaren aldeko omenaldi ekintzetan parte hartzeko deia egin zuen sindikatuak, bide batez.

LABek bezala, Artzain Onean gose greban diren hamabost intsumisoei ere azken egun hauek gertatu diren heriotzen kontestuan kokatu zuen intsumiso iruindarrarena. Jose Maria Aranzamendi presoaren, Eugenio Aranburu HBko Mahai Nazionalako kidearen eta Unai Salanuevaren «heriotzaren erantzukizuna Estatua du», azpimarratu dute komunikatu baten bidez.

Jarraik ere ohar bat kaleratu zuen gertakariaren inguruan. Gazte erakundeak azpimarratu duenez, azkenaldi honetan beren buruaz beste egin duten gazteen kopurua asko igo da. Jarrairen arabera, «alor pertsonala gainditzen duten zenbait faktorek eraginda». Ildo horretan, intsumiso izateagatik Unai jasan behar izan zuen kartzela zigorra ekarri du gogora, eta «zigor horren gortasunak milaka euskal gazteren errealitatea oraindik gordinagoa bihurtzen du, errepresioaz eta kartzelaz gain gizartetik kanpo utzi nahi baitituzte». X

## ‘Euskara merkataritzara’ kanpaina hasi du Antiguako Bagerak

■ Emaizak onak badira Donostiako beste auzoetara zabalduko da

Erredakzioa / Donostia

BAGERA Euskaltzaleen Elkartek Euskara merkataritzara kanpaina hasi du Donostiako Antigua auzoan. Siadecorekin batera antolatutako kanpaina honetan 110 komertzio bisitatu dituzte Bagerako kideek. Merkataritza munduan «euskararen erabilera bultzatzea» da helburua. Emaizak onak badira, Antiguako beste zonaldeetara eta Donostiako beste auzoetara zabalduko du kanpaina Bagerak.

Kanpaina bi fasetan banatu dute Bagerako kideek. Lehen fase batean denda bakoitzaren hizkuntza egoera jaso eta ezagutuko da. Antiguako Bagerako inkestari talde batek komertzioak bisitatu ditu; taldeak informazioa bilduko du —ea saltzaileek euskara erabiltzen duten, errotuluak nola ipinita dauden...— eta euskaratu nahi dituzten idazkiak jasoko ditu. Itzulpenak Bagerak «doan, musutruk» egingo ditu, taldeak zabaldu duen prentsa oharrean esaten denez.

Bigarren fase batean, eta bigarren bisita baten bidez, «merkataritza gune bakoitzaren beharrezko egokitutako eskaintza zehatzak eta aproposak» egingo ditu Bagerak. Hitzarmen mota ezberdinak, ikastaroak, itzulpenak... eskainiko dizkie Bagerak komertzioei. X

## Idi gizenak erakutsi dituzte hirugarren aldiz Baionan

■ Hiriko harakinek ihaute asteartea horrela ospatzeko ohitura dute

Erredakzioa / Baiona

HIRUGARREN aldikotz, Baionako harakinek ihaute asteartea ospatu dute idi gizenen erakusketa antolatuz hiriko merkatu estaliaren aurrean. Hamaika profesional elkartu ziren hogegei bat abere erakusteko, eta ia elurra egin bazuen ere, atzo euria izan zuten. Temperatura, ordea, ia ez bezala, nahiko epela izan zen.

Idi gizenek gain, bi txahal erakutsi zituzten amaren ndoan, esneaz hazitako aberrearen promozioa egiteko. Pottokak ere izan ziren lehen aldikotz, eta euria egin arren, itzuliñoak egin zituzten haurren plazer handirako. X